

argazkiak behatuz,
irudimena landuz
euskal kultura
asmatu!

2.edizioa

testu eta irudi sormen lehiaketa

irudimena

•com

Zuk ere parte har ezazu! Erraza da:

1

ARGAZKI BAT AUKERATU

Txosten honetan eta www.irudimena.com
web-orrian daude aukeran diren argazkiak.

2

TESTU BAT EDO IRUDI BAT SORTU

Betiere oinarrituz aukeratu argazkian.

3

ZURE SORKUNTZA BIDALI!

2012ko maiatzaren 16a aitzin www.irudimena.com
gunetik edo info@irudimena.com helbidera.

Multimedia
sari frango
irabazteko!



Ordenagailu eramangarriak,
liburu elektronikoak,
argazki-kamarak...

2012ko martxoaren 15etik maiatzaren 15era

Antolatzaileak :



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE



Euskal kultur erakundeak gazteei zuzendutako
«Hogeita» programaren ekintza bat

2.edizioa



Euskal kulturaren adierazpen edo une batzu ilustratzen dituzten 12 argazki hautatu ditugu (ikus ondoko orriak). Atzokoak nahiz gaurkoak.

Proposatzen dizugu argazki horiei bigarren bizi bat ematea. Zure irudimenean sortaritzen duten oihartzunari itxura bat emanez, testuz edo irudiz.

Hori baita «irudimena» lehiaketaren helburua; norberak euskal kultura bere irudimeneko argi-jokoz edo testu-jokoz asmatzea.

Ausarta zaitetz!
Zure irudimena astindu!

Oharra

Txosten honetan agertzen diren argazkiak www.irudimena.com webgunean daude eskuragarri definizio altuan.

1

Pilota plazan

Dantzari bat Bastidako (Nafarroa Beherea) pilota plazan (2006).



Frank Suarez | EKE



2

Toponimia

Arberoako (Nafarroa Beherea) mendi ibilaldia (2009).



Jakes Larre | EKE



3


Harrizulatzalea

Harri bat zulatzen Larzabalen (Nafarroa Beherea - 2009).



Jakes Larre | EKE





Jakes Larre | EKE



Euritakoak
«Xiberoko Jauna» Pastoral, Ezpeizen
(Zuberoa - 2008).

4



Pantxika Maitia | EKE



Eskulana
Jatsuko sagardi batean
(Lapurdi - 2009).

5



Pantxika Maitia | EKE




Marratzen
Asisko Urmeneta,
komikilariaren tailerra Maulen
(Zuberoa - 2006).

6

7

Buamea

Santa Graziko maskarada (Zuberoa - 2010).




www.dantzan.com



8

SMS

Itxaro Borda idazleak Yves Sallaberry «Xala» pilotariari bidalitako mezua. (Gipuzkoa - 2009).



EKE | www.iparraldea.info



9

Herri Urrats

Berri Txarrak taldearen kontzertua, Senperen. (Lapurdi - 2011).



Xabi Berrouet | www.xabibe.canalblog.com





Kutxa Fototeka - Fondo Marin - Paco Mari | guregipuzkoa.net

CC BY-SA

Mattin

Mattin Treku bertsolaria (1916-1981)
Donostiako Anoetako frontoian
(Gipuzkoa - 1967).

10



Pantxika Maitia | EKE

CC BY-SA

Kale-dantza

«Zpeiz Mukaki» euskal dantza taldea
Bordaleko karriketan (Frantzia - 2008).

11



Pantxika Maitia | EKE

CC BY-SA

Panderoa

Kepa Junkera musikariak izenpetua
(Bizkaia - 2004).

12

- 1 Euskal kultur erakundeak eta Azkue Fundazioak « Irudimena » izeneko sormen lehiaketa antolatzen dute bigarren aldikotz, interneten bidez, 2012ko martxoaren 15etik maiatzaren 15era. Lehiaketa horren helburua euskal kulturaren inguruko sormen literarioa eta grafikoa bultzatzea da gazteen artean. « Irudimena » lehiaketa Euskal kultur erakundeak abiatu « Hogeita » gazteei zuzendu urte anitzetako ekintza programaren filosofian oinarritzen da (ikus www.hogeita.com).
- 2 Lehiaketan parte-hartzea dohainik da eta 14 urtez goitikoei idekia. Ipar Euskal Herriko adingabeek (18 urtez petikoeak) beraien aita-men baimen idatzia helarazi behar dute izena ematerakoan.
- 3 Lehiaketarentzako web-orri bat zabalduko da sarean (www.irudimena.com). Bertan 12 argazki proposatuak izanen zaizkie bisitariari, denak Creative Commons lizentziarean (Aitortu-Partekatu berdin). Argazki bakoitzak zenbaki bat izanen du. Lehiaketan parte hartu nahi duenak argazki bat hautatu behar du. Argazkian oinarrituz bi aukera ditu parte-hartzaileak : euskarazko testu bat idaztea (edo zoin generotan, poesia, narrazioa, deskribzioa, bertsoak, nanoliteratura - adibidez twiteratura - ...) edo irudi berri bat sortzea (argazkia eraldatuz, marrazki bat edo margo bat eginez, 3D-ko irudi bat sortuz...). Biak egin daitezke ere bai. Orotara parte-hartzaile bakoitzak bost sormen lan auzetu ditzake gehienik (adibidez hiru testu eta bi irudi, edo bost irudi). Igorleak ziurtatzen du bidalitako obren egilea dela. Parte-hartzaileak bere sorkuntza helaraziko die antolatzaileei www.irudimena.com webgunean izango den inprimakiaren bidez edo mezu bat bidaliz info@irudimena.com helbidera, zehaztuz aukeratu duen argazkiaren zenbakia. Edozoin kasutan bere parte-hartzea baieztatuko duen agiria eskuratuko du berak utzitako e-postan. Lehiaketan parte hartzeko epea 2012ko martxoaren 15ean hasiko da eta 2012ko maiatzaren 15a arte iraungo du.
- 4 Sormen lanak ondoko ezaugarriak errespetatuz helaraziko dira :
Testuak :
- Luzetasuna : guttuenik 750 karaktere (100 hitz inguru) eta gehienik 2500 karaktere (450 hitz inguru)
- Formatua : numerikoa (testua, word, PDF, Open Office...)
Irudiak :
- Formatua : numerikoa (.jpg, .gif, .tiff, .psd...)
- Bereizmena : guttuenik neurri honetakoa, 600x600 pixel
- 5 Jakinez sormen lehiaketarako proposatutako 12 argazkiak Creative Commons (Aitortu-Partekatu baimen beraren arabera) lizentziarean erabiltzen direla parte hartzen duenak onartzen du berak igorri lana(k) lizentzia berdinarean pean banatua(k) izatea.
- 6 Antolatzaileek lanak eskuratu eta sarean jarriko dira eta publiko eginen www.irudimena.com orrian, egile bakoitzaren izen, abizen eta herriarekin batera. Obraren eskuratzeko eguna ere agertuko da. Baztertuko dira eduki polemikoak, pornografikoak eta xenofoboak hedatzen dituzten obrak edo jendeen sentiberatasuna mintzen ahal dutenak. Parte-hartzaileek bidalitako datu pertsonalak helburu bakarrarekin erabiliko dira: erabiltzaileen eskaerak kudeatzea eta eskaintako zerbitzua ematea. Erabiltzaileak bere datuak kontsultatu, zuzendu eta ezeztatu ahal izango ditu, eta datu horien aurka ere egin ahal izango du, mezu elektronikoa bat bidaliz info@irudimena.com helbidera (Frantziar estatuko «Informatika eta Aspekatasunak» legeko 34. artikulua). www.irudimena.com webgunean CNIL erakundearen deklaratu izango da.
- 7 Antolatzaileek aukeratu dituzte epaimaihan egonen diren ki-deak. Hego nahiz Ipar Euskal Herrian arte grafikoa eta literatura munduan dabilzan adituez osatua izanen da. Epaimahaik askatasun osoz jardungo du eta berak finkatu irizpideak (kalitate teknikoa, aberastasuna, originaltasuna...) hartuko du bere erabakia.
- 8 Modalitate bakoitzean (sormen literarioa edo sormen grafikoa) egileak bi taldeetan banatuko dira adinaren arabera : 25 urtez petikoeak eta 25 urtez goitikoak. Talde bakoitzean puntu gehien lortuko duten lehen hiruak saristatuko dira. Sariak www.irudimena.com webgunean zehaztuak izango dira. Orotara beraz 12 pertsona saristatuak izango dira (6 sormen literarioarentzat eta 6 sormen grafikorentzat). Saridun bakoitza telefonoz edo mezu elektronikoa baten bidez abisatua izango da.
- 9 Sariak ekitaldi ofizial baten kariatara emango dira (ordua eta eguna geroago zehaztuko dira). Sari banaketaren dataren ondotik sari guztiak emango ez balira, edo lehiakideren batek bere saria eskuratu nahiko ez balu, lehiaketan puntu gehien lortu dituen hurrengo pertsonak eskuratuko luke sari hori. Prozesu hau behin eta berriro errepikatuko da sari guztiak banatu arte.
- 10 Lehiaketako parte-hartzaileak espreski onartzen du lehiaketa honetako oinarri guzti-guztiak beteko dituela. Oinarriren bat betetzen ez badu, parte-hartzailea lehiaketatik kanpo geldituko da eta saria galdu egingo du. Aparteko kasuetan eta behar bezala justifikatutako arrazoirik balego, antolatzaileek oinarri hauek aldatu ahal izango ditu lehiaketa hasi eta. Argitaratutako argibide eta informazio guztiak lehiaketaren zehaztapen eta baldintzetan sartuko dira. Oinarri hauen interpretazioan zalantza edo desadostasunak sortzen baldin badira, antolatzaileen irizpidea gailendu egingo da.